

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuaren kultura-agenda aste honetarako

Nafarroako Gobernuak jarduera berriak antolatu ditu apirilaren 23tik 29ra bitarteko asterako

Astelehena, 2018.eko apirilak 23

[Aste honetan](#), gaur hilak 23 astelehenarekin Nafarroako Liburutegiak Liburuaren Eguna ospatuko du, ekitaldi hauen eskutik: “On Kixote”-ren irakurketa, ipuin-kontalariak eta hitzaldiak, besteak beste.

Zinemak film hauek ekarriko ditu Nafarroako Filmotekara: “Trabajos de amor

perdidos”, astelehenean; “Certain Women. Vidas de mujer”, asteartean; “Young and Beautiful” eta “Yours Truly”, asteazkenean, Punto de Vistako Foco zikloaren barruan; eta “El veredicto”, ostiralean.

Musikari dagokionez, Fernando Remacha auditorioak “La Chulopona” zarzuela hartuko du, eta Baluarte, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren emanaldia.


Prestakuntzak bai Nafarroako Artxiboan, bai Huarte Zentroan hartuko du leku: Think Tank zikloaren lehen laborategia (“Kultura komunikatzea praktikotik”), asteartean, Iruñekoan, eta, Uhartekoan, “XYZ ¡eXpresa! ¡proYecta! ¡zigZaguea!”, “Kartografia hedatua: Hiri [des] itxuratua”, “Pulp Fikzioa eta Koadernaketa” eta “Zeharkako estetikak. Aisialdiko ekosistemak”.

Ondokoak ikusgai daude oraindik: “Gamazadaren 125. urteurrena”, Nafarroako Errege Artxibo Nagusian; “Incurvar”, Oteiza Museoan; “Meatzariak gerran”, Lizarrako Karlismoaren Museoan; “Danok taldea. 1966-1967”, Nafarroako Museoan; eta “Ikusgai egiten duen gaua”, Huarte Zentroan.

Aste honetan ere, Nafarroako Liburutegiak “Ongi etorri ipuinetara: Kamishibai” aisialdiko jarduera hartuko du, ingelesez oraingoan.

Bukatzeko, Iruñeko katedraleko klaustroan egiten ari diren lanak ikusteko bisitak antolatu dira, baita ondoko erakusketa hau ikusteko ere: “Danok taldea. 1966-1967. Modernitate osatugabea”. Museoen Zerbitzuak bultzatutako “Pasaportea: Museatu! eta bidaiatu” kanpainak aurrera darrai.

Esteka honetan duzu kultur [programazio osoa](#):



“Young and beautiful” filmeko fotograma.